

# 9

# GIDA

# DIDAKTIKOA:

## TALIESIN (GAELIKOA)

### AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	12. or.
Bibliografia	17. or.
Egileak	18. or.

## GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA





	<b>Etapako helburuak</b>	<b>2. zikloko edukiak</b>
Ahozko hizkuntza	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzeakoak, bai ezagutzak eraikitzeakoak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea. Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazioatutako testuetan informazio zehatzak ekoiztea, hala nola errutinak, oharrak, instrukzioak, azalpenak, iritziak, bizipenen kontakizunak, sentimenduen adierazpenak.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea, hala nola elkarrizketak, bakarriketak, deiak, oharrak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari direnen ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea adieraztea eta laguntzako jarrerak garatzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: aurretiazko ezagutzak gogoratzea, hipotesiak egitea, testuari laguntzen dioten irudietako informazioaz baliatzea, ulertzen ez dituen hitzak identifikatzea eta galdetzea. Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Landutako testuak identifikatzea. Landutako testuen egitura identifikatzea.
Literatura hezkuntza	Mota guztietako testu literarioak irakurtzea eta entzutea gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa zein hizkuntza aberasteko baliabide gisa.	Haurren interesetarako eta adinerako egokiak diren testuak antzeztea. Helburu ludiko estetikoak duten ahozko tradizioko testuak irakurtzea.
	Hizkuntza literarioaren konbentzioez jabetzen hastea, testuak hobeto ulertzeko.	Testu literarioen adierazteko balioarekin interesatzea.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazioko unitate gisa ulertzea. Oinarrizko arau ortografikoak ezagutzea: puntua, koma, beheko marratxoak. Oinarrizko arau ortografikoei begirunea izatea.



## JARDUERA FUNTZIONALA





Ikaskideentzako kontakizun bat asmatzea.

EKINTZAK

1. Egin kondairaren laburpena, irudiz eta idatziz:







## HIZKUNTZA-SISTEMAREN GAINENKO HAUSNARKETA

## 2. Engainatzen

Antzeztu kontakizunaren zati hau, ondo ahoskatuz, keinuak eta mugimenduak esanahiari eta, batez ere, **engainatzeko asmoari** egokituz:

CERIDEN: Tra, la, la, la... Gwion Bach, utz ezazu hori eta zatoz hona. Laguniezadazu.

GB: Zer egin behar dut?

CERIDEN: Paper honetan marraztu dudan behiari eutsi behar diozu, eta nik haragizko behi bihurtuko dut.

GB: Eta zergatik ez duzu mahai gainean jartzen? Ez naiz zurekin fidatzen!

CERIDEN: Bai zera! Eta behi bihurtzen denean, mahaia apurtuko zait, tontolapiko hori! Tira, jar zaitetz hor. Ez izan kakatia! Alabin, alaban, behi bihurtuko zara. Txin!

GB: Muuu!

CERIDEN: Kaka zaharra! Ez zara geldi egon, eta sorginkeriak zuri eragin dizu!

GB: Muuuuu!

CERIDEN: Bueno, honek ere balio du, behiaren ilea behar dut-eta neure edaria egiteko.

GB: (MARRUKA)

CERIDEN: Ea, lasai. Egon zaitetz geldi! Kito! (BARREAK)

GB: Muuuuu!

CERIDEN: Tira, jarrai dezagun! Edabe honek ondo atera behar du!

GB: Aizu, neure onera itzuli nahi dut berehala! Muuuuuuu!

CERIDEN: Ea, ba! Ea, ba! Alabin, alaban, izan zinena izango zara! Txin!

GB: Muuu! O! Ene! Lehengoa naiz! (BARREZ)

Ea kondaira honetan nola engainatzen den:

Zer esan nahi du **berehala** hitzak?

### **Neska eta lakua**

Mutil bat neska batekin maiteminduta zegoen. Neska laku baten ondoan bizi zen. Mutilak neskari ezkontzeko eta berarekin bizitzera joan zedin eskatu zion.

Neskak erantzun zion ezin zuela mutilarekin ezkondu, ez baitzuen mutilaren etxera bizitzera joan nahi. Izan ere, neskak etxe aurrean zuen lakua egunero ikusi nahi zuen, eta, ezkontzean, neskak mutilaren etxera joan ohi ziren.

Mutilaren ama sorgina zenez, lakua lekuz aldatzea erabaki zuen.

Lakua lekuz aldatzeko baimena eskatu behar zuen, eta horixe egin zuen.

Baimena eskatu zion herriko buruzagiari. Eta baimena eman zion, sorginak agindu baitzion ezteiak ospatu ondoren lakua bere lekura itzuliko zuela.

Ezteiak amaitu eta egun batzuk pasatu ondoren, buruzagiak sorginari lakua bere lekura itzultzeko eskatu zion.

Sorginak honela erantzun zion: "***berehala itzuliko dizut, eternitatearen astearen amaieran***".

Demagun zuek zaretela sorgina eta lakua lortu nahi duzuela betiko. Betiko eskatzen baduzue, ez dizuete emango. Ez duzue, ordea, gezurrik esan nahi. Nola lortuko zenukete?

**Sinboloen esanahia:** Taliesinen kondaira sinboloz beterik dago, beste kondairetan eta ipuinetan bezala.

Hona hemen lapikoaren esanahia kondaira batzuetan:

Lapiko magikora botatzen ziren hilotzak berpiztu egiten ziren.

Jakituria ematen zuen.

Oparotasunaren iturria izaten zen.

Grial Sainduak berpizten zuela uste zuten.

Hau da, lapikoak edo ontziak gizakion ametsak sinbolizatzen zituen; amets onak kasu honetan.

Zergatik izango ote da?

Zuk ba al dakizu jakituriaren lapikoa non den? Bat baino gehiago izan daitezke: liburuak, dokumentalak, Internet, harrietan idatzitako edo marraztutako informazioa, pertsona ikasiak, esperientzia dutenak...

Zeure kontakizunerako, sinbolo bat asmatu behar duzu, baina, praktikatzen hasi baino lehen, ikus ditzagun sinbolo ospetsu batzuk. Ezetz asmatu zer irudikatzen duten honako mito hauek!

Arturo erregearen mahai biribila	a		1. Urtearen hasiera
Altxor bat aurkitzea	b		2. Urtea
Arturo erregearen 12 zaldunak	c		3. Bizitzaren zailtasunak
Basoaren erdia	d		4. Zuhaitz zaharra
Merlin aztia	e		5. Urteko hilabeteak
Arturo erregearen ezpata harkaitzetik ateratzea	f		6. Unibertsoaren erdia
Basoa	g		7. Bizitzak eskaintzen duen alaitasuna eta ondasuna

### 3. Fikziozko narrazioa idazten:

Taliesinen kondaira beste kondaira batzuekin batera aurki daiteke *Mabinogion* liburuan.

Taliesinen kondairan, Ceriden sorginak edo jainkosak lapiko bat zuen, non jakituriaren edari magikoa egiten baitzuen. Bada, zelten kondairetan, beste hainbat objektu agertu ohi dira: jakituria, gudua eta abar.

Pentsa ezazu zure istorioan agertuko den objektu berezi bat, ahalmen bereziak izango dituen.

Marraz ezazu zeure objektu magikoa:



PLANIFIKATZEN	ZIRRIBORROA EGITEN
<p>Lehendabizi, pentsatu zer konpondu nahi duzun: zuk duzun arazoa, lagunek duten arazoa, munduak duen arazoa?</p> <p>Hurrek, gazteek, helduek, zaharrek, neskek, emakumeek, mutilek, gizonezkoek, ikasleek, langileek, langabeek, animaliek, landareek...</p>	<p>Gogoan izan <b>intriga</b> apur bat eman behar zaiola kontakizunari, hau da, gauza batzuk ez dira kontatu behar amaierara arte.</p>
<p>Bihotz onekoak / gaiztoak dira.</p> <p>Bihurriak/serioak dira.</p> <p>...</p>	<p><b>Narratzailea</b> pertsonaia bat izango da ala istorioa ezagutzen</p>
<p>Nolakoa da haien garaia? Oraingo garaian gertatzen da? Antzinako garai batean? Etorbizuneko garaian?</p>	<p>duen beste pertsona bat?</p>
<p>Nolakoa da haien bizitokia? Herria, auzoa, etxea, gordelekua...?</p>	<p>Ondo bereizi narratzaileak eta pertsonaiek esaten dutena.</p>
<p>Arazoari aurre egiteko zer egin dezaketen edo egin lezaketen.</p>	<p>Pertsonaiek hitz egiten dutenean, “_” marra hori</p>
<p>Pentsatu duten konponbidea aurrera eramateko aurkituko dituzten oztopoak.</p>	<p>jarri behar duzu. Erne ibili!</p>



IZENBURUA :

**TALIESIN**

MARI: Kaixo, haurrak. Gaurko kondaira Galesko pertsonaia bati buruzkoa da. Ez zen jainko bat izan. Nik dakidala, olerkaria izan zen. Eta Taliesin "the Radiant Brow" esaten zioten, "bekoki distiratsukoa" euskaraz. Arturo erregea baino lehentxeago bizi izan zen. Arturo erregea gogoratuko duzue, jakina: mahai biribila, Eskalibur ezpata... Bai, ziur naiz ezaguna egiten zaizuela. Bada, egia esateko, oso gutxi dakigu Taliesini buruz, baina, zorionez, heldu zaigu hari eta haren maiteari buruzko kondaira, olerki batzuen bitartez.

HAURRA: Nola?

MARI: Olerkiok ahoz aho kontatzen ziren, norbaitek liburu batean bildu zituen arte. Bertan, istorio bat baino gehiago dago, baina nik neure gustukoena kontatuko dizuet. Ea, bada, ikus dezagun.

CERIDEN: Tra, la, la, la... Gwion Bach, utz ezazu hori eta zatoz hona. Lagun iezadazu.

GB: Zer egin behar dut?

CERIDEN: Paper honetan marraztu dudan behiari eutsi behar diozu, eta nik haragizko behi bihurtuko dut.

GB: Eta zergatik ez duzu mahai gainean jartzen? Ez naiz zurekin fidatzen!

CERIDEN: Bai zera! Eta behi bihurtzen denean, mahaia apurtuko zait, tontolapiko hori! Tira, jar zaitzez hor. Ez izan kakatia! Alabin, alaban, behi bihurtuko zara. Txin!

GB: Muuu!

CERIDEN: Kaka zaharra! Ez zara geldi egon, eta sorginkeriak zuri eragin dizu!!

GB: Muuuuu!

CERIDEN: Bueno, honek ere balio du, behiaren ilea behar dut-eta neure edaria egiteko.

GB: (MARRUKA)

CERIDEN: Ea, lasai. Egon zaitzez geldi! Kito! (BARREAK)

GB: Muuuu!

CERIDEN: Tira, jarrai dezagun! Edabe honek ondo atera behar du!

GB: Aizu, neure onera itzuli nahi dut berehala! Muuuuuuu!

CERIDEN: Ea, ba! Ea, ba! Alabin, alaban, izan zinena izango zara! Txin!

GB: Muuu! O! Ene! Lehengoa naiz! (BARREZ)

CERIDEN: Tra, la, la, la...

GB: E! Zer da hori?

CERIDEN: Oso edabe berezia. Hemendik edaten duenak den-dena jakingo du. Lehena, oraina eta geroa ezagutuko ditu!

CERIDEN: Jakituriaren edari magikoa da.

GB: Baina hori posible al da?

CERIDEN: Bueno, egiten dudan lehen aldia da.

GB: Jadanik gertatu dena ezagutzea ez da zaila. Jakina, ikusi eta gero, denok gara jakintsu!

CERIDEN: Ez pentsa! Kontatzen dutena guk dakiguna da, baina gertatu zena eta kontatzen dutena... askotan ez dira gauza bera.

GB: Bai, orain dela gutxi ikusi ahal izan dugu hori: mugitu naizela leporatu didazu, baina ni ez naiz mugitu. Zeu mugitu zara! (BARRETXOA)

CERIDEN: Nola ausartzen zara? Isil zaitez, ahohandi hori! Zu zara tontolapikoa! Tontoa halakoa!

GB: Eta oraina ezagutzeko ere ez da edabe magikorik edan behar. Badakizu zergatik? Bada, oraina gure begien aurrean dagoelako!

CERIDEN: A, bai?

GB: A, bai? A, bai? Noski! Begi-bistakoa da!

CERIDEN: (MARMARREAN) “Begi-bistakoa! Begi-bistakoa!” Zer jakingo duzu zuk?

GB: Hori edozeinek daki! Tira, nahi duzuna egingo dugu frogatzeko.

CERIDEN: Eta zer ari da gertatzen oraintxe?

GB: Bada, argi dago, edari magikoa prestatzen ari garela.

CERIDEN: (OFF) Tori!

GB: Aii! Ai, ai, ai! Baina, baina, burutik jota zaude, ala?

CERIDEN: Ni? Bai zera! Frogatu nahi nizun oraina ez dela horren erraz ezagutzen, gauza asko ez baitaude agerian.

GB: Astakiloa halakoa! Ai! Bihurria zara gero!

CERIDEN: Kar, kar, kar! Gauzak ez dira hain sinpleak! Kar, kar, kar! Kar, kar, kar! Mmm! Zer, ez duzu jakin nahi geroaldia ezagutzea zertarako den komenigarria? (BARREAK)

GB: Ez! Eta utz nazazu bakean! Tira, jarrai dezagun. Ez duzu, bada, esan “ez zenuela egun osoa”?

CERIDEN: Nahi duzun bezala.

GB: Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta lehenago amaituko dugu.

CERIDEN: (BARRETXOAK) Pss! Ez pentsa! (BARREA)

GB: E? Nola ezetz?

CERIDEN: Jmmm! Osagaiak botatzea gutxienekoa da, okerrena gero dator!

GB: Eta hori?

CERIDEN: Urtebetez egon behar du sutan.

GB: Zer? Agortu egingo da eta! Lurrundu egingo da, eta ezer gabe geratuko gara.

CERIDEN: Horixe bera nahi dut. Bueno, ezer gabe ez, ia ezer gabe!

GB: Baina, kantitate gutxi nahi baduzu, ur gutxiago bota, eta kito!

CERIDEN: Ez. Izan ere, landare guztion mamia hiru tantatan bildu nahi dut.

GB: (MARMARREAN) A zer gauza bitxia...

CERIDEN: (BARRETXOA)

GB: (MARMARREAN) ...edabe hori guztia hiru tantatan biltzea!

GB: Baina, deskuidu batean, ezer gabe geratuko zara!

CERIDEN: (BARREA) Nik ez dut zainduko, zuk baizik. Hementxe geratuko zara urtebetez, sua zaintzen.

GB: Zer? Zu burutik jota zaude!

CERIDEN: Eta hobe duzu nire edabea ez izorratzea, aditu? Erne egon beharko duzu!  
(BARREA)

GB: (OFF) (ON) Ez da bidezkoa, ez didazu hau egingo!

CERIDEN: Eta nork galaraziko dit? Zuk? (BARREA)

GB: Banoa hemendik!

CERIDEN: Ezin duzu. Kobazuloa itxita dago. Ez dago joaterik! Atea sorgindu dut, eta ez da zabalduko edabea prestaturik egon arte. (BARREA)

GB: Sorgin gaizto hori, utz nazazu joaten!

CERIDEN: Kar, kar, kar! Inozoa halakoa! Begira zer gertatu zaizun etorkizuna ez ezagutzeagatik. Kar, kar, kar!

CERIDEN: Aiiii! Aiii! Traidore hori!

GB: Kar, kar, kar! Zuk ere ez dakizu etorkizunak zer ekarriko dizun, e?

CERIDEN: Madarikatu hori, hortxe geratuko zara! Txin ta-ta txin,

GB: (OFF) (ON) Sorgin gaiztoa halakoa! (OFF) (ON) Harrapatzen badut... hil egingo dut!  
Sorgin gaizto alaena! Ene errukarria! Zer egingo dut nik orain, hemen, bakar-bakarrik? Ai ene!  
Kokoteraino nago edabe honi eragiten! (ZURRUNGAK)

MARI: (OFF) Kokoteraino egonda ere, hantxe egon behar zuen Gwion Bachek. Eta egunak joan, egunak etorri, egonezinarekin batera, ilea eta bizarra hazi zitzaizkion.

GB: Nazkatuta nago. Ez dakit zer egingo dudan. Ai ene!

CERIDEN: Arraioa! Hau bizimodua! Ni hemen eta bera hor nonbait, olgetan! Nori eta niri bururatu behar sorgin batekin ibiltzea! Mmmm... Badakit zer egin! Neuk edango dut edabe honetatik. Hartara, sorginaren asmoak ezagutuko ditut, eta ez nau ustekabeen harrapatuko. (BARREA) Garaiezina izango naiz! Gainerakoa bota egingo dut, eta bera baino ahaltsuagoa izango naiz. (BARREA)

CERIDEN: Alproja handi hori! Banengoen, ba, ni! Artaburua halakoa! Nire edabea! Orain, zer? E?

GB: Ene! Sorgina!

CERIDEN: (OFF) Zatoz hona! (ON) Larrutik ordainduko duzu. (OFF) Etorri hona, alproja!

GB: Ez, mesedez, ez.

CERIDEN: Apo bihurtuko zaitut.

GB: Gaitz erdi! Atea zabalik egongo da! Ai, ai, ai! (OFF)

CERIDEN: Alferrik zabilta. Ez duzu ihes egingo.

MARI: Gwion Bach gizagaixoa! Edabetik hartu zuenez, iragana, oraina eta geroa ezagutzeko gaitasuna zuen. Berari ez zion, bada, geroak gauza onik ekarriko! (BARREA)

GB: Ai ene! Ai, ai, ai!

CERIDEN: Ez joan ihesi, txorimalo halakoa!

GB: Ez, ez, ez.

CERIDEN: Tontolapikoa! Badakizu zer gertatuko zaizun, ezta?

GB: Ez, ez, mesedez, ez.

CERIDEN: Edabea niretzat zen, eta orain ahalmena zurea da, e? Hala ere, ez dio axola. Jan egingo zaitut, eta, hartara, zure botereak neureganatuko ditut. Kar, kar, kar! Ez duzu ihes egingo. Txin!

CERIDEN: A zer tuntuna naizen! Orain lehen baino azkarrago dabil. Itxaron! Alferrik ari zara korrika. Alproja halakoa! Harrapatuko zaitut.

CERIDEN: Zaude geldi, ez duzu ihes egingo!

GB: Ez, mesedez.

CERIDEN: Txin!

CERIDEN: (OFF) O, ez! (ON) Behia ez dut gogoko. Badakit, gari-ale bihurtuko zaitut. Txin!

CERIDEN: (BARREA) Zer uste zenuen? Cerideni ez dio inork barre egiten. Zoaz pikutara! Alde hemendik! Tra, la, la, la...

MARI: (OFF) Errekak itsasora eraman zuen gari-alea. Han, sare batean harrapatuta geratu zen, eta, bertan zegoela, gizaki bilakatu zen.

HAURRA: Eta ito egin zen?

MARI: Ez, askatu eta lehorrera irten zen. Baina, harrezkero, Taliesin deitu zioten, bekokia oso distiratsua zuelako.

HAURRA: Zergatik?

MARI: Bada, antza denez, etorkizuna ikusi ahal izatearen ondorioz. Ez omen da gauza atsegina.

HAURRA: Bada, niri gustatuko litzaidake.

MARI: Ez dakizu zer diozun!

HAURRA: Eta, gero, zer egin zuen Taliesinek?

MARI: Olerkari bilakatu zen, eta bideetan barrena ibili zen bere istorioa kontatzen. Horra, entzun haren olerki polit bat, (OFF) *Zuhaitzen borroka* deritzona.

GB: Honelakoa izan aurretik,  
izaera asko izan ditut.  
Ezpata estua izana naiz;  
zeruko malkoa izana naiz;  
izar distiratsua izana naiz;  
eskutitzaren hitza izana naiz;  
liburua izana naiz.

GB: Argi izpi distiratsua izana naiz;  
ukuilu, zubi, bidezidor, arrano,  
kanaberazko txalupa,  
norabidearen makila,  
gela zabaleko tximinia  
izana naiz.  
Zirrikitu malguan ezpata izana naiz.  
Istilu gordinean ezkutu izana naiz.  
Harpa baten soka izana naiz.  
Bederatzi urtez  
ur eta aparretako irudi aldakorra izana naiz.  
Suak ahitua izana naiz.  
Trinkotasunean grina izana naiz.

## BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

# Egileak

## GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:

Luisa Calvo

GIDA DIDAKTIKOA  
EUSKARAKO ARDURADUNA:

Joan Ignazio Bereziartua

ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

## **K2000 S.A.**

Produktore exekutiboa:  
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:  
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:  
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:  
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:  
Monika Erdozia  
J. L. Irigoien  
Pedro Arrieta  
Ana T. Bengoetxea  
Ramón F. De Castro  
Kepa Kueto  
Jon Goirizelaia  
Tere Jaio  
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:  
Ricardo Goti  
Antonio González  
Javier Artetxe

Nahasketak:  
Gorka Lara  
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:  
Ana Urresti

Koordinatzailea:  
Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailaren  
egokitasun-aitormena du:  
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1491/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA